

# BETIKO TRAUMA OSTEKO ESTRESA



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Londres, 1915. Charles Myers (1873-1946) psikologo ingelesek “shell shock” (jaurtigaiek eragindako shocka) terminoa erabili zuen lehenengoz *The Lancet* medikuntza aldizkarian, Lehen Mundu Gerrako fronteetan borrokan ari ziren soldadu askori gertatzen ari zitzaiena deskribatzeko. Inolako zauri fisikorik gabe, ageriko arrazoirik gabe, askotariko sintomak zituzten: amnesia, dardarak, amesgaiztoak, ikusmena eta hitz egiteko ahalmena galtzea... Psikologoak gatazka hartan lehenengoz erabili zen munizio eta artilleria astun neurrigabeari egotzi zion gaitz berria eta horregatik jarri zion izen hori. Beste batzuek gerrako neurosia esango zioten, eta gaur egun, trauma osteko estresaren nahasmendua (TOEN) du izena.

Azalpen nabarmen eta egiaztagarrikerik gabe, arduradun militar askorentzat koldarkeria zen; hala, dozenaka soldadu heriotzara kondenatu zituzten. Ahalegin batzuk ere egin ziren sintoma horiekin modu eraginkorragoan arintzeko –eta fronteetan soldadu kopuruari eusteko–, gaixoei egun batzuetako atsedena emanaz, baina 1917an Armada Britainiarrek guztiz debekatu zuen diagnosia, eta armadaz kanpoko medikuntza dokumentuetan ere zentsuratu egin zuten. Arerioentzat ere tabua zen gaitz hura. Zurrumurruak dio Adolf Hitler bera,



Duela hiru urteko ikerlan baten arabera, duela 3.000 urte baino gehiago soldadu asiriarrak trauma osteko estresa izan ohi zuten. BRITISH MUSEUM


Lehen Mundu Gerran soldadu zela, aldi baterako itsu geratu zela, baina gero kontu handiz ezabatu zituela frogatu guztiak.

Dena den, gerrak eragindako TOEN ez zen berria. Herodotok (K. a. 484-425) Maratongo Guduaren (K. a. 490) berri xehe jaso zuen, eta hala zioen pasarte batean: “Borrokalde hartan mirari arraroa gertatu zen: borroka betean, Epizelo atenastarra, Kufagorasen semea, soldadu prestua, bat-batean itsutu zen, gorputz osoan gertuko kolperik nahiz urruneko gezirik jaso gabe; eta orduz geroztik itsu geratu zen bizialdi osorako”.

Eta 2015ean, Jamie Hacker Hughes eta Walid Abdul-Hamid ikerlariak TOENen aztarna zaharragoak topatu zituzten, Duela 3.300 urteko zenbait testu asiriarrak aztertuta. Testuok deskribatzen dituzte borrokan aritutako soldaduek izan ohi zituzten ner-

bio atakeak, gorputz adarretako dardarak eta, batez ere, amesgaiztoak. Haien zat ametsen mundua eta hildakoena estuki lotuta zeuden. Lo zeudela hildakoekin zeukaten harremana fisikoa zen, gainera. Esaterako, gaixotasun asko hildakoek ametsetan kutsatutakoak zirela uste zuten. Hala, gauean, hildako kide nahiz etsaiekin zeukaten harreman zuzen horrek eragin bortitza zeukan gudariengan. Asiriarren sistema militar ziklikoak behintzat lagunduko ziren gaitza arintzen; urtebetez jardun militarretan aritu ondoren, beste urtebetez obra publikoetan egiten zuten lan.

Horrenbestez, ondorioztatu daiteke gerrak eragindako trauma osteko estresaren nahasmendua gerra bera bezain zaharra dela. Eta Antzinaroan gaitza sentsibilitate eta ulermen handiagoz tratatzen zutela XX. mendearen hasieran baino. ■



## Britannicak ez ditu kritikak ondo jasotzen

1959tik hasita, Harvey Einbinder (1924-2013) fisikariak bost urte eman zituen Encyclopaedia Britannica goitik behera miatzen akatsen bila. Akatsak topatu zituen, zehatzak ez ziren datuak, baina baita iritziak eta ikuspegi lerratuak ere. Entziklopediari egin zion kritika nagusietakoa izan zen publiko estatu-batuarraren nahiak asetzera bideratuta

zegoela –gogoan izan 1901ean Britannica AEBetako enpresa batek erosi zuela–. Eta berrikuntza zientifikoak berandu jasotzea ere egotzi zion fisikariak.

Einbinderrek bere sarrera du Wikipedian. Britannicari buruzko Wikipediako sarreran ere haren berri jasotzen da. Baina entziklopedia britainiar ospetsuan ez da bere izena aipatu ere egiten. ■